



Tokiko telebista proiektuaz arduratzeko eskaria

TOLOSALDEA ▶ HITZari eskatu dio Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Talde sortu berriak

PROIEKTUA ▶ HITZAko ordezkariak, lehenengo bileran, babesa eskertu eta lasaitasuna eskatu dute ▶ 2



70 lagunek hartu zuten parte bileran, Tolosako Kultur Etxean. N. LATABURU



I. GARCIA

Euskadiko kart txapelduna, seigarrenez

ALKIZA ▶ Jon Altunak berriro irabazi du Euskadiko Txapelketa, junior mailan; gustura dago, baina zuhur begiratzen dio etorkizunari ▶ 4

BERASTEGI ▶

Parte-hartze handiarekin, aurrera darrai Kultur Asteak

Hitzaldia, futbol partidak, kontzertua, ibilaldia, mus txapelketa... izan dira ▶ 6

LEITZA ▶

'Argazkiei begira' liburua, kalean

Illarregiren lana bihar aurkeztuko dute ▶ 7

LEITZA ▶

'Aio, Leitze!' aurkeztu dute, bertako euskalkiaren hiztegia

Mikel Olano egileak berak azaldu zituen lanaren nondik norakoak ▶ 7

KOMUNIKABIDEAK ▶

HITZari toki telebista baten proiektuaren ardura hartzea eskatu dio herritar talde batek

Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Taldeak lehen bilera egin du; HITZako ordezkariak «konfiantza» eskertu dute, baina «denbora eta lasaitasuna» eskatu



Lehen bilera burutu zuen herenegun Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Taldeak. NOELIA LATABURU

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Taldeak lehen bilera egin zuen herenegun iluntzean Kultur Etxean. Gizarte eragile eta herritar askok erakutsi zuten honen aldeko babesa eta interesa, eta 70 lagun inguru bildu zen. Bi abiapuntu izan zituzten ardatz bilera honetan: batetik, eskualdekako telebisten inguruko legea eta egoera, non Espainiako Lurre-

ko Telebista Digitalaren Legearen arabera, Eusko Jaurilaritzak duen tokiko telebisten kokapena zehazteko ahalmena eta 2005. urtea amaitu baino lehen banatu beharko dituen EAEko telebistek dagozkien lizentziak. Aipatu zutenaren arabera, hamar urteko balioa izango dute eta eremuka edota barrutika egingo da. Gipuzkoan zazpi barruti aurreikusten dira, baina Eusko Jaurilaritzak ez du oraindik jakitera eman zer baldintza

bete beharko dituzten tokiko telebistek.

Bestetik, Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoaren (TEPE) gainean jardun zuten. Duela lau urte Tolosaldean euskarak hainbat arloetan zuten egoera aztertu zuten, nondik nora jo behar zen ezagutzeko. Ondorioak hauek izan ziren: gizarte eragileek, hala nola enpresek, elkarteek edo dendeak, euskararen aldeko konpromisoak hartzearena

HELBURUA

Euskarak toki telebistan leku duina izan dezan; hori dela eta, taldeak proiektuari eusteko eskatu dio HITZari

eta bideratzearena —horren adibide argia Bai Euskarari ziurtagaria— eta instituzioek aurrera eramane beharreko proiektuak edo administrazioak lagunduta egin beharrek. Honen barruan bi proposamen plazaratu zituzten: lan munduan plan integralak bideratzea eta komunikabideen gaia. Helburua lau euskarri izango dituen sare sendoa osatzea da —egunkaria, Internet, irrati eta telebista—. Honek bultzatu du talde hau, hain zuzen ere, proposamen hau gauzatzera. Horrela, 2001ean azken puntu honen egikaritzari ekin zitzaion, *Egunero* —egun hitza dugun hau, ezagunak diren arrazoiak medio direla— jaio zela.

Paperezkoarekin hasi eta berehala egunkari informatikoa ere gauzatu zen, eta egun euskarri hauek «ondo finkatu» dira, gizartearen zein erakundetan. «Jakina den bezala», egunero-egunero milaka lagunek

euskaraz irakurtzen dute honi esker, 7.500 etxetara iristen baita. Bere arrakasta, euskara hutsean izateaz gain, «bere kalitateari ere» zor diola aipatu zuten taldeko kideek. Ekimen honi babes «ekonomikoa, moral eta soziala» emateko Tolosaldeko Berriak Kultur Elkar-atea sortu zen.

Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Taldeak herenegun bileran adierazi zuenaren arabera, «iritsi da garaia beste mediatiko bati heltzeko», besteak beste, toki telebista. Kontseiluaren ustez, «hil ala bizikoa» da telebistak leku duina hartzea mundu mediatikoan. «HITZako zuzendari berri Leire Montes ere ekimen honen alde azaldu zen kargua hartzerakoan, eta bazkideek ere horren berri izan zuten urteko kuota ordaintzerakoan». Taldeak telebistak «onarpen soziala eta instituzionala» lortuko duela uste du.

Aipatu arrazoi guztiak direla eta erabaki dute telebistaren aldeko taldea osatzea, batak bat honako helburua dutela, HITZari eskatzea heldu dieziola proiektuari, «euskarak toki telebistan leku duina izan dezan». Halaber, HITZari euren «konfiantza, babesa eta laguntza» izango dutela azaldu zuten bileran orain arte egin-dako lana aintzat hartuz, «paperetik pantailarako salto hau euskarak onuragarri izango duelako uste sendoa» dutelako.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZako ordezkariak, beren aldetik, eskerrak luzatu nahi izan zituzten guztiei euren jarritako konfiantza eta emandako babesa dela eta. Hala ere, «lasaitasuna» eskatu zuten, eta «denbora», proiektu horrek eskatzen dituen pausoak eman aurretik «egoera behar bezala aztertze».

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

HEZKUNTZA ▶



laz bezala aurten ere askotariko ekitaldiak antolatatu dituzte Hirukide ikastetxean. LEIRE MONTES

Ekitaldi andana Hirukiden, Zaindarien Astearen harira

Asteburuan hasi ziren lehen ospakizunak; larunbata bitarte jolasak, elizkizunak eta bestelakoak izango dira ikastetxean

NOELIA LATABURU

Hirukide ikastetxean Zaindarien Astearen murgilduta daude asteburutik. Ekintzez jositako egitaraua antolatuta dute, ikasleei zein irakasleei zuzendutakoak. Horrela, datorren larunbata bitarte, hiru zaindariak izango dituzte gogoan, beti ere festa giroa nagusi. Kirikiño aisialdi taldeak bereak egin zituen asteburuan eta orain ikastetxeko kideen txanda da.

Gaur, 08:00etan hasi eta 11:30ak arte, elizkizunak izango dira maila guztientzat: DBH 4, LH 3, DBH 3 eta DBH 1ekoentzat, hain zuzen. Azken hauek, gainera, Andoainera joango dira. Arratsaldean, berriz, musika emanaldia izango dute. Bihar ere eguna beteta datorkie. 08:00etan, Batxilergokoek elizkizuna izango dute; DBH 1ekoek herri jolasak eta DBH 3-4koek filma bat izango dute ikusgai. 09:00etan, berriz, kirolak, jolasak eta elizkizunak izango dira LH 3-4, LH 5 eta LH6ko ikasleentzat. Zaindariei buruzko emanaldia ere emanango dute 09:45ean, eta 10:30ean ipuin kontaketa antolatuta dituzte. 11:00ak aldera, jokoak, tailerrak, filmak, ordenagailu jokoak, Hiruko eta Mus Txapelketa, irratsaioa, mahai jokoak

Gaur, musika protagonista

Gaur, 19:00etatik aurrera, musika emanaldi berezia izango da entzungai Jesuitinen elizan. Aurkezle lanetan Juan Urretabizkaia eta Elene Arandia izango dira, eta egitarau zabalak antolatuta dute: txalaparta eta adarra; hasierarako bi bertso; lehengo zikloko ikasleentzako antzerki bat; hirugarren mailako *Loa-Loa* eta *Euria mendian*, biak ala biak xirulaz joko dituzte; ondoren, txistularien emanaldia izango da, Azkue aita-semea eta lehengusua, eta pieza pare bat joko dute; ondoren, laugarren mailako txanda izango da, eta

hauek ere xirulaz beste bi kanta aurkeztuko dituzte: *Tristerik ilargia* eta *Txori txiki bat*. Bosgarren mailakoek ere hartuko dute parte bertan, dantzaldiarekin.

Hauen ostean, Julen Amorrarri eta Juan Urretabizkaia ariko dira. Lekukoa Mikel Zelaiak eta Iraide Ansorenak hartuko dute. Ondoren, luba soinuarekin izango da. Eta, bukatzeko, azken hiruak: Elene Arandia, David Azurzaren abesbatzaren emanaldia eta bukaerarako agurra, bi bertsoekin eta txalapartaren doinuarekin alaituko dutena. ◀

eta Pintxo Lehiaketa izango da. 12:10ean, berriz, dominak banatuko dizkiete irabazleei. Arratsaldean ere izango da zer gozatua eta goizekoen jarraila burutuko dute, askotariko lehiaketa eta jokoekin. Buruhandiek ere festan hartuko dute parte, Jesuitinetan.

Etzi, ostirala, ikasleek ez dituzte eskolak, baina bai beste-lako ekintzak. Mendi irteera izango dute DBH 1 eta 2 mailako gazteek, 08:30ean. 11:00etan Batxilergo bigarren

mailako ikasleek futbol partida izango dute irakasleen aurka, Eskolapioetan. Atsedendian DBH eta Batxilergoko dominen banaketa egingo dute. 13:00etan, Batxilergoko 2 mailakoentzat, langileentzat eta sendikoentzat elizkizuna egingo da Jesuitinetan. Honekin batera, larunbatean ere 19:00etan beste elizkizuna ospatuko dute leku berean.

Gainberriko haurtxoek marrazkiak, abestiak eta jokoak egingo dituzte aste guzian.

IKASTAROA ▶

100 orduko argazki ikastaroa Kultur Etxean

Hil honen 28an hasiko dira eskolak, eta izen-ematea zabalik da honezkeror

I. ETXEBESTE

Tolosako Udalak urtero antolatzen dituen kultur tailerren baitan, 100 orduko argazki ikastaro berria prestatu dute. Hilaren 28an hasiko da, eta astelehenean eta asteazkenean izango dira eskolak Kultur Etxean Iñigo Royo argazkilaritola sarearen gidaritzapean. Astean bitan eta eguneha hiru orduz, 18:30ak eta 21:30ak bitartean azalduko ditu Royok argazkigintzari buruzko nondik norakoak. Hori bai, argazkigintzaren oinarriko ezagupenak landuko dituzte ikastaroan.

Antolatzaileen esanetan, gutxienez 8 eta gehienez 15 ikasle izango dute aukera ikastaroan parte hartzeko, eta izena eman ahal izateko 16 urte izan beharko ditu ikasleak gutxienez. 171,55 euro ordaindu beharko dira, bestalde, ikastaroan izena emateko.

«Argazkigintza teknikarekin zerikusia duten lorrak ikasleak beren kabuz lantzea lortu nahi dugu ikastaro honen bitartez», azaldu du Iñigo Royok. Bai argazki kamara erabiltzerakoan eta bai argazkiak zuri-beltzean errebelatzerakoan. «Ikasleek jakin behar dute adierazpen pertsonala lortzeko bidean askotariko aukerak ematen dituela argazkigintzak. Ikastaro berri honetan, gainera, berrikuntza bat izango da: argazkigintza digitalari buruzko oinarriko ezagupenak eskainiko ditugu, eta, era berean, photoshop-en bitartez argazkiak nola landu daitezkeen ikasteko aukera izango da».

Besteak beste, argazkigintzari buruzko kontakizun historikoa, kamara ilunaren fun-

tzionamendua eta bere zatiak, eta argazkigintza prozesuaren genesis izango dira ikastaro hasieran jorratuko diren gaiak. Ondoren, kamara motak, analogikoak zein digitalak, hauen ezaugarriak, abantailak eta desabantailak azalduko ditu. Argazki kamara bat egurrean edo kartoiaren erakitzeko moduak; objektiboak eta lenteak, distantzia fokala eta barne sakontasuna. Diafragma eta argazkiak ateratzerakoan elementu hauek duten eragina. Emultsioaren ezaugarriak, argiarekiko sentsibilitatea, kontrastea, neutroak eta zuzentze-filtroak. Zuri-beltzeko filtroak eta kolorekoak. Flasharen erabilpena, hauen motak eta ezaugarriak. Photoshoparen sarrera argazkigintzan. Argazki laborategien erabilpena... Eta bestelako gaiak izango dira ikasgai.

Ikastaro guzian zehar ikasleek ariketa praktikoak izango dituzte, argazkigintzan hastapenak egiteko. Ariketa hauek gainera, eskoletan aurkeztuko dira eta ikaskide guztien aurrean eztabaidatuko dituzte; honen helburua «denen artean, argazkigintzan sor daitezkeen arazoei aurre egin ahal izatea izango da».

Bestalde, argazkigintzaren historian izan diren argazkilarik ospetsuenen gaineko errepaso burutuko dute, besteak beste, Daguerre, Julia Margaret Cameron, H. Fox Talbot, Nadar, Lartigue, Eugene Atget, Irving Penn, Man Ray, Robert Capa, Cartier Bresson, Robert Frank, Joel Peter Witkin, Nan Goldin eta Javier Vallhonrat. Irteerak ere egingo dituzte ikastaroan zehar, ikaskide guztientzat, praktikak egin ahal izateko.

ZINE-KLUBA ▶

Biharko zine-klub saioa bertan behera geratu da

N. LATABURU

Biharko zine-klub emanaldia, Tolosako Kultur Etxean gartzatzen dena, bertan behera geratu da, Titirijai-ren saioak di-

rela eta. Horrela, filma atzeratu egingo da eta abenduaren 7an, asteazkena, proiektatuko dute. Dena den, hurrengo aste teko filma zegoakion datan izango da ikusgai.

ALKIZA ▶ KIROLA

Seigarren aldiz jarraian txapeldun

Jon Altuna kart gidari gazteak berriro bereganatu du Euskadiko Txapelketa

IMANOL GARCIA

Jon Altuna alkizar kart gidariak Euskadiko Txapelketa lortu berri du junior mailan. Hamasei urte egin behar ditu, baina ez da bere lehen txapelketa, seigarrena baizik, eta denak jarraian. Hiru txapelketa lortu zituen kadete mailan eta beste hiru lortu ditu junior mailan. Bere aita Iñakik bultzatuta ekin zion kirol berezi honi. Izan ere, aita mekanikoa da eta Ander Vilariñoren taldean ere jarduten du.

Motorra eta lasterketen mundua gertutik ezagutzen du Iñaki Altunak eta bera da semea-

ren kart-a puntuan jartzen duena probaren aurretik. 120 kilometro orduko hartzen ditu makinak eta ez da harritzekoa gidari gazteari abiadura gustatzea.

Egindako lorpenekin, noski, gustura dago ere alkizar gaztea, baina etorkizuna ilun samarra ikusten dute aita-semeek: «Kirol hau egitea benetan garestia da. Datorren urtean mailaz aldatu beharra dauka-gu eta oso zaila ikusten dugu lehiatzen jarraitzea babeslerik gabe». Guztira, 18 lasterketa egiten dira, egun batean bi eginenez. Egun bakoitzean 450 euro inguru gastatu behar izaten



Jon Altuna, lehiaketan erabiltzen duen kart-aren gainean. I. GARCIA

dute: material berria dela, kartaren mantenimendua dela...

«Oso zaila da mundu honean aurrera egitea», azaltzen du aitak. «Jonesk dohain handiak ditu. Ander Vilariñok bezar ere, elkarrekin egin zuten proba batean, oso ondo gida-

tzen zuela eta ez zuela askorik erakusteko esan zion. Baina aurrera egiteko dirua behar da, eta hori lortzea ez da errazta». Olaberriko zirkuituaren, Giatorren eta Ander Vilariñoren taldearen laguntza izan dute aurrera egiteko. «Etorki-

zuna izateko Kataluniako probetan lehiatu beharra dago, baina horrek diru gehiago jartzea eskatzen du. Talde bat behar da eta hori asko ordaintzen da». Datorren urtean lehiatzeko, beraz, babesle baten laguntza zain daude aita-semeak.

IRURA ▶ AGENDA 21

Herri batzarra deitu du Udalak biharko

Agenda 21eko egitasmoaren baitan egingo den bilera da; etzi, kale animazioa haurrentzat

ERREDAKZIOA

Erniobera Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietan herri batzarrak egiten ari dira. Bihar, Iruraren txanda izango da. Ikastolaren aretoan izango da hitzor-

dua, 19:30ean. Irurako Udaltik herritarrei herri batzarran parte hartzeko gonbita egin diete, bertara joaten denak aukera izango baitu herriari buruzko iritzia emateko.

Agenda 21eko gaiekin ja-

rraituz, etzi kale dinamika bat egingo dute Iruran. 17:00etatik 19:00etara izango da, plazan eguraldi ona egiten badu, eta frontoian eguraldiak ez badu laguntzen. Kale dinamika honetara joaten diren haurrek

herrian zeharreko altxorren bila jolasean aritzeko aukera izango dute. Altxorra, kasu honetan, parte-hartzaile guztien artean asmatu beharko duten esaldi esanguratsu bat izango da, hondakinen eta bere birzi-

klapenaren inguruko gaia ikutuko duen esaldia. Horretarako birziklapenarekin erlazioa duten zenbait proba gaintitu beharko dituzte. Hiru taldetan banatuko dituzte jolasean parte hartuko duten umeak, eta bakoitzak taldearen logoa eramango du aurpegian. Jolasak irauten duen bitartean, bestalde, gurasoei Irurako Agenda 21ari buruzko azalpena eman-goto diete.

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608 m2-ko pabilioia alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Hiru solairu, bakoitza 200 m2-koa. 35.000 m2-ko lur-saila. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioia salgai edo alokeran, 1050 m2, eta 250 m2-

ko solairuareta, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m2 erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m2-ko etxebizitza, berritua, trasteleku handiarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m2-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Irura. 2 logelako etxebizitza, eraiki berria, garajea aukeran.

Legorreta. 3 hektareako lursaila, sarbide onarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000

m2 pabilioi salgai, 920 m2-ko azken moduluak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 balet, 297.500 eurotik hasita. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldera, igogailuarekin eta trastelekuarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza, berritua. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Apataerrek, duplex berritua, garajearekin eta lursailarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean

azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m2 erabilgarriak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelako aukera. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m2-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alliri kalean, 105 m2-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokarako etxebizitzak ere baditugu. zonalde eta azalera ezberdinetakoak.

943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

Hector Luna margolariaren erakusketa

Tagaeri Amazoniako indioen inguruko erakusketa txiki baina sakona da

NEREA URBIZU

Oraingoan ere erakusketa interesgarri bat ikusteko parada dago Alegiako Jubilatuen tabernan: Hector Luna ekuador-tarraren erakusketa txiki baina interesgarri bat. Tabernan hamar bat koadro daude ikusgai, eta baita salgai ere. Tamaina ezberdinekoak dira, eta hainbat gai jorratzen dituzte. Orokorrean, Amazoniako indigenen ingurukoak dira, haien «zapalkuntza etengabea salatze» aitzakiarekin. Urteetan zehar baso tropikaletako egur salmentarekin Tagaeri indioek izandako gorabeherak ekartzten ditu gogora egileak, eta «indio horiei omenaldi bat egin nahian margotutako dira gehienak. Indio hauek bortizki erahilak izan ziren», adierazi du Lunak, eta nabarmena da bere desadostasuna ekintza hauekin. Hori bere koadroetan islatu nahi izan du, eta lortu egin du.

Erabiltzen duen margoa margo mixtoa da, eta oinarrian egitura akrilikoak daude. Ikusleak ongi aski nabari dezake artelan askotan egileak margo kantitate asko erabiltzen duela pinzelada bakoitzean, horrek artelanari beste izaera bat emanez: margolan izatetik erliebe edo eskultura lana izatera pasatzen dela dirudi. Egitura oso espresiboa du, hortaz.

HECTOR LUNA
MARGOLARIA

«Indio horiei omenaldi bat egin nahian margotu ditut gehienak. Indio hauek bortizki erahilak izan ziren»

«Koloreen aukeraketa subkonszientean dagoen zerbait da, ez da gauza guztietan garrantzitsuen»

Bistan da ere Lunak erakusketa honetarako nahiago izan dituen koloreak zeintzuk diren, kolore nagusiak hotzak direnez, hala nola, urdina eta berdea. «Hori subkonszientean dagoen zerbait da», argitu du artistak, «hasiera batean, ez baita kolorea garrantzitsuen». Ez ditu koloreak aukeratu, nolabait esatearren, gorputzak eskatu dion zerbait izan da.

Edozein modutara ere, Jubilatuen tabernako erakusketan neofigurazio estiloa topatuko du ikusleak, abstrakzioa labar-margo paleolitikora hurbiltzen. Garaiak nahasten dira, eta Lunak ez dio estilo bati heltzen. Dena den, Jorge Oteiza oso gustoko duela dio, baita Antonio Tapias margolaria ere.

Nahi izanez gero lanak eros-



Erahilak. Hector Lunak begirada oso adierazkorak lortzen ditu. HITZA



Indigenen tradizioa. Kulturaren adierazle. HITZA



Emakumea biluzik. Beste gai bat jorratuz. HITZA

teko aukera badago, eta haien prezioak tabernan bertan aurrki daitezke.

Erakusketa hilaren hasieraz geroztik dago ikusgai Jubilatuen tabernan, eta abenduaren hasiera arte izango da bertan. Ikusteko aukera tabernako ordutegi berean izango da.

IKAZTEGIETA ▶

Kultur Asteak aurrera jarraitzen du

Aurrera darrai Kultur Asteak. Gaur, 19:00etan, hitzaldia izango da, liburutegian, Tre-palari Elkartearen eskutik. Jorratuko den gaia ondokoak izango da: hiriguneetan landa daitezkeen zuhaitz espezieen aukeraketa. Bihar, berriaz, *Klima aldaketak eta horien eragina gure planetan* gaiaz ariko dira, leku eta ordu berean, Elhuyar Fundazioakoak.

ALEGIA ▶

Bertsolari Txapelketarako sarrerak salgai

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolaren eskutik, Kultur Etxean Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak daude salgai. Helduek 25 euro ordaindu behar dituzte, eta haurrek 6. Autobus txartelak 12 eurotan dira, eta bazkarirakoak 18 eurotan. Autobusa osatuz gero herri-tik irtengo da; bestela, Gipuzkoako Bertsotzale Elkarteak Tolosan antolatu du.


ALEGIA ▶

'Ibaialde' erakusketa Kultur Etxean

Kultur Etxean bihurtik abenduaren 1a bitarte ikusteko aukera izango da *Ibaialde* erakusketa. Ibaian kalitateari eta urari buruzko erakusketa da, eta Ingurugela-CEIDA-k egituratua da —natura aztertzen eta defendatzen duen erakunde gipuzkoarra da—. Goizez eta arratsalde, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara, izango da ikusgai.

Gure Irratia Bidegurutzan

Sostengu kantaldia, 2005eko urriaren 29an iragan zena, orain DVDan eskuragarri



Parte-hartzaileak:

- Pili Pili taldea
- Maialen Errotabehera
- Anje Duhalde
- Eperra taldea (Niko eta Dominika Etxart, eta Robert Larrandaburu)
- Kattalin Indaburu
- Karolina Philips
- Unama taldea
- Xabaltx
- Amaren Alabak

AZAROAREN 25ean

berria +5,95€

GURE IRRATIA Gure Lokala

EuskaIdunok behar dugun berria

BERASTEGI ▶ KULTURA

Giro onean eta herritarren parte-hartzearekin ari da burutzen Kultur Astea

«Harrera ona» ari dela izaten azpimarratu dute; ekitaldi ugari geratzen dira oraindik

IÑIGO TERRADILLOS

Aurtengo Kultur Astearen erdialdera iritsi dira Berastegin. Izan ere, bi asteburuetan banaturiko egitaraua antolatu dute, eta atariko ekitaldiak pasa den ostiraletik igandera izan zituzten.

Hain zuzen ere, Miguel Mari Elosegik eskainitako hitzaldia-ekin eman zioten hasiera Kultur Asteari. Eskolako gimnasioan izan zen hitzordura joan zirenek Pirinioetako hartzairen ingurukoak entzuteko parada izan zuten. Bestalde, irailean herriko 7 futbol taldek hasi zuten ligari larunbateko finalarekin eman zioten amaiera. Jaber Malkorra, Mikel Etxeberria, Julen Martinez, Iñaki Barriola, Jon Azpiroz, Garbiñe

Ezkerra eta Joseba Agirrezabala jokalariek osaturiko *Bartzelona* taldea izan zen txapeldu-na. Jokalari onenaren saria Jaber Malkorrek eraman zuen, eta ligako atezainik onenarena, berriz, Asier Saizarrek. Bestalde, larunbateko egitaraua Jone abeslariaren kontzertuarekin osatu zen.

Igandean, 30 lagun inguruk «giro bikainean» egin zuen ibilaldia Mustar-zaharren barrena. Arratsaldean izan Mus Txapelketan, berriz, 22 bikotek hartu zuten parte. Felipe eta Joseba Azpiroz izan ziren irabazleak, eta bigarren Joseba Agirrezabala eta Iñigo Atxukarro geratu ziren.

Bada zertaz gozatua oraindik herrian, etzitik igandera hainbat ekitaldi izango baitira.



Mus Txapelketako irabazleak euren sariarekin. HITZA



Aurtengo futbol txapelketako irabazlea izan den taldea. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

5-1eko emaitzarekin, «garaipen erraza» erdietsi du Ibarrak

Martxoaren 5etik baja den Carrera aulkian izan zen estrainekoz; jubentilek 2-3 galdu zuten San Juanen aurka

ERREDAKZIOA

«Garaipen eroso», 5-1eko emaitzarekin, Ibarra areto futbol taldeak Jarrilleros taldearen aurka Belabieta kiroldegian larunbatean lortutakoa. Hala azaldu du taldeko prentsa

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Ehiza garaian erabat murgildurik gaude eta eskualdean makina bat izango dira postuen atzean uso bandoen zain jarduneko direnak. Ehizaren aldekoa ala kontrakoa zara? Zergatik?» Animatu eta eman zure iritzia!

arduradunak, Jose Manuel Toibasek.

Ibarako Belabieta kiroldegia ia leporaino bete zuten zailek partidaren hasieratik bukaeraino etxeko taldea jaun eta jabe zela ikusi zuten. Eta aukera ugari izan bazituzten ere, 14. minutura arte ez zuten baloirik sare barrura sartu; Sinoe izan zen, baloi galdu batez baliatuz, jokaldia egin eta talde piparreroa aurretik jarri zuena. Hurrengo jokaldian iritsi zen bigarrena; kasu honetan, kontraraso bat burutu zuten ibarrek eta Uztaritzek gauzatu zuen. 2-0ekoa zen. Ibarrek aukerak sortzen jarraitu zuten arren, emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira.

Ezin esan aldaketa handirik izan zenik bigarren zatian. Izan

ere, lehenengo minutuan sartu zuen hirugarren gola Ibarra-koen Hautsi jokalaririk. Jarrilleros taldekoen eskutik ez zen arriskurik sortzen, baina bai, ordea, Ibarra-koenetik, eta hurrengo gola iristear zela nabari zen. Horrela izan zen. 30. minutuan Pradosek egindako jaurtiketa sare barruan sartu baitzen. Handik gutxira, partida amaitzear zela, iritsi zen Jarrillerosen gol bakarra izango zena, Iñaki jokalariren eskutik. Ibarra-koek, baina, izan zuten bosgarrena egiteko astirik; Unai Labaka izan zen azken minutuan 5-1ekoa egin zuena. Hori izan zen azken emaitza.

Bestalde, aipatzekoa da martxoaren 5etik baja den Jon Ander Carrera aulkian egon zela; beraz, laster izango da jokatzeko

IBARRA ▶ 5

JARRILLEROS ▶ 1

Hasierako bostekoa. Mikel Sanz; Unai Labaka; David Prados; Hautsi Izagirre; Ustaritz Errondosoro.

Aldaketak. Sinoe Sanz; Lander Camio; Mauro Ayerza.

Bajak. Fernando Ayerza; Pool; Xabier Blanch.

Zigortuak. Igor Zabalo; Cesar Roca.

ko moduan. Eta aipatu behar da ere Cesar Roca entrenatzailearen zigorra dela-eta jubentilen entrenatzaile Juan Pablo Zubelzu *Txubelek* bete zuela bere lekua aulkian.

Jubentilek zorte gutxiago

Nagusiek baino zorte gutxiago izan zuten jubentilek, 2-3 galdu baitzuten San Juan nafarren aurka. Hori bai, partida ikusgarria izan zen, bi taldeek maila ona erakutsi baitzuten.

Bestalde, Cesar Rocak, Mikel Sanzek eta Mauro Ayerzak entrenatzen dituzten Uzturpe Ikastola taldeko kadeteek Carmelo ikastolaren aurka jokatu zuten larunbat goizean, eta 6-6 ko emaitzaz amaitu zuten partida.

TOLOSA ▶

Gabonetako loteria eskura Gure Txokoa

Tolosako Gure Txokoa elkarretetik jakitera eman dutenez, bertako bazkideek aurtengo Gabonetako loteria dagoneko eskuragarri dute. Eskuratu ahal izateko elkartera jo baino ez dute egin beharko bazkideek.

TOLOSA ▶

Tolosagasako abonuen irabazleak

Zozketa burutu ondoren, Tolosagasako bi pertsonentzako abonuen hamar irabazleak jakitera eman berri dituzte. Hain zuzen ere, ondorengoak dira sarituak suertatu diren herritarrek: Pablo Zubelzu, Mari Carmen Ocariz, Vanesa Mujika, Andoni Elola, Desiree Gonzalez, Ana Beatriz Zozaiariarte, Raul Odriozola, Luzia Aranzabe Gonzalez, Mila Uriarte eta Leire Ugalde.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Zigortuak.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza-aren autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

'Aio, Leitze!'-ri ongietorria

Mikel Olano egilearen beraren azalpenekin aukeztu dute Leitzako euskalkiari buruzko hiztegi mardula



Mikel Olanok bere lanaren nondik norakoak azaldu zituen. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

S ekuleko hotza dau; kollate honekin hotzak kizkittue nau». Esate baterako, honelaxeko esapideak adituko ditugu sarri leitzar askoren ahotan, atzoko gisako eguraldiaren eraginez. Bertako euskalkiaren ezaugarri lirake kollate edota kizkittue hitzak.

Bada, lehengo ostiral iluntzean aurkeztu zuten Leitzako liburutegian Mikel Olano Irurtiak argitaratu berri duen *Aio, Leitze! Leitzako euskararen hiztegia* liburua. Egileak berak aurkeztu zien bertara bildu ziren entzuleei.

443 orrialdetan zehar, Leitzako euskalkian erabiltzen diren edo erabili izan diren hitzak jasota daude, bakoitzak bere adiera jarraian duela, eta erabiltzeko ereduak ere aita-

izan ere, izenburutik hasita «ez du hiztegi titulua bestelakoa baizik», ohartaraziz.

Hain zuzen ere, lanari jarritako izenburuaren argibideak emanez ekin zion Olanok. «Despedida kutsurik ez nion eman nahi baina epoka bat pasa da eta mugarri bat izatea nahi nuke», azaldu zuen: «Honera iritsi gara eta aurrera koentzat baliozko izateko».

Berak iritzi zionez, moderno izateko lehiari sartuta «gauza zaharrek ez dute balio» pentsatzea omen da ohiko, baina bere ustetan «moderno izateko, ordea, 'gauza zahar horiek' ezagutu egin behar dira», plazaratu zuen. Eta, bide horretan, «bizi zaren lekua ezagutu nahia motibo izanda», zionez, hiztegia argitaratzea erabaki zuen. Honekin, Leitzako euskalkiko hitzen zerrenda baino, bizimodu baten isla ere badiren adierak bildu ditu, kasu askotan, jada erabiltzen ez direnak nekazal-bizimoduari atxikitakoak izaki. Baina beste asko eta asko egun erabiltzen direnak.

Etnografia, corpus-a eta dialektologia lan hau egiteko garaian oinarri eta baliatu izan dituen beste hainbat egile eta lan goraiatu zituen Olanok, besteak beste: Azpiroz apaizaren *Euskara aldizkariko argitalpenak*, Batiste Zabaletak urtero *Plazaola* aldizkarian argitaratutakoak, Patziku Perurenak egindako lanak —«Euskal Herriari buruz horrelako lana egin dutenak»—, eta, noski, berak, etxe askotan izanduz, «adineko, baserriar, bordariekin egonez» bildu duena.

Orain, «baliozko» egitea da tokatzen dena. Erabiliz!

AIO, LEITZE! ▶

Izenburua. *Aio, Leitze! Leitzako euskararen hiztegia* —*etnografia, corpusa, dialektologia*—.

Egilea. Mikel Olano (1969).

Argitaratzailea. Mikel Olano eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.

Orrialdeak. Hiztegia, 443.

Beste lan batzuk. *Bizkarririk ez dudana emakumea* (1995); *Donostia Hiria Ipuin Saria*; *Areso eta Leitzako hizkerak* —*bertako hitz eta historian barrera*— (1998).

tuz; zenbait kasutan, askotan, hitzari dagokion argazkia ageri da. Hiztegi modura izendatuta badago ere, «hiztegi bat baino gehiago dela ere esan daiteke», aitortu zuen Olanok berak;

LEITZA ▶ KULTURA

'Argazkiei begira' poema liburua, argitara

Mikel Illarregik Marrodan Saria irabazi eta bihar egingen dute liburuaren aurkezpena

J. ASTIBIA

Bihar osteguna, 20:00etan eta Leitzako liburutegian, Mikel Illarregiren *Argazkiei begira* poema liburua aurkeztuko dute.

Illarregik, uda baino lehenago, Mario Angel Marrodan X. Olerki Saria irabazi zuen eta orain, egindako poemak argitaratu dituztelarik, hori zuten saria, noski, sari horren orogarria ere jasoko du, Marrodan elkartetik aditza eman dutenez.

Ekitaldian, Marrodan idazlearen ibilbidearen aipamena egin eta leitzarrak *Argazkiei begira*-n argitaratu berri dituen zenbait olerki irakurriko dituzte. Era berean, elkarte horretako kide Joseba Gotzon



Olerki liburuaren azala. J. ASTIBIA

kantariak ere saiotxo egingen du.

Jakina denez, Illarregik olerki hauekin eta berak egindako argazkiekin erakusketan prestatu zuen. Orain Goizuetan da ikusgai.

LEITZA ▶ MENDIA

Igandean Sartzaletara joanen dira Mendibilekin

Lokizen dagoen kasko honetara joateko izena emateko azken eguna da bihar

J. ASTIBIA

Mendibil mendi taldeak antolatuta, igandean Sartzaletara egingen dute mendi irteera Leitzaldean. Joan nahi duenak Maimur edo Astiz liburudendetan eman behar du izena, horretarako azken eguna bihar osteguna izanik.

Igandean, goiz, 08:00etan aterako dira plazatik, jendea biltzen bada autobusez. Lokiz mendi zerrako ekialdeko pun-

tu altuenetakora: Ganuzatik abiatzekoak dira (590 metro-tako altueratik), zerraren hegoalde, harrobizko horratz, paret eta zintzur sakonak bistan dituztela, Santiagoko ermitan barrera Sartzaletara igotzeko, 1.114 metro tara dagoen garaiera laua; iparraldera eta ekialdera Amezkoak bistan direla, aurrez- aurre Urbasako mendilerroa izanez, eta hegoalderago Iurramendi-ko ikuspegiak izanik.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 23a, asteazkena ▶ III. urtea

| | | | | | | | | | | | | |
|------------------|---------------------|-------------------------------------|-------------------|---------------------|------------------|----------------------------------|---------------------------------|--------------------------|--|------------------------------------|--|--|
| GAURKO EGURALDIA | goizez arratsaldez | beroena 09 hotzena 05 | BIHARKO EGURALDIA | goizez arratsaldez | ELURRA ARALARREN | Guardetxe: gaur: ez / bihar: bai | Pagomari: gaur: ez / bihar: bai | Gipuzkoako Foru Aldundia | | Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila | | HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) 943 30 43 46 |
|------------------|---------------------|-------------------------------------|-------------------|---------------------|------------------|----------------------------------|---------------------------------|--------------------------|--|------------------------------------|--|--|

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Udaltalde 21 Ernioaldeak herri batzarra antolatu du udaletxean, 20:30ean, Tokiko Agenda 21aren bitartez herriaren etorkizunean parte hartzeko.

Baliarrain. Inaki Martiarena *Martin* marrazkilaria *Belardo belar metaren ibilerak* ipuin marrazketa saioa emango du. Bihar, 17:30ean, Kultur Gelan.

Gatzelu. Udaletxearen eraikinean kokatutako taberna zerbitzua ustiatzeko izena eman daiteke udaletxean bertan. Hilaren 28a da horretarako azken eguna.

Ibarra. Udaltalde 21 Ernioaldeak herri batzarra antolatu du udaletxean, bihar, 19:30ean, Tokiko Agenda 21aren bitartez herriaren etorkizunean parte hartzeko.

Leitzaldea. Leitzako, Aresoko, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak haurrentzako aisialdi tailerrak antolatu ditu Eguberrietako oporraldietarako, eta begiraleak behar ditu. Izen-ematea, Euskara Zerbitzuan (948 51 08 14).

Tolosa. Ander Letamendiak Txinparta elkarrearen 75 urteen historiaz idatzitako liburua aurkeztuko dute, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Hitzaurrea Juan Garmendia bazkideak egin du.

Tolosa. Liburu Azoka San Frantzisko pasealekuan: 17 argitalexe daude bertan. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara zabalik.

Tolosa. Milagroaren bederatzirrena izango da lurreamendiko elizan hilaren 19tik 26ra. Astegunetan



Ski estremoia Pirinioetan, Eneko Pourekin

VILLABONA ▶ Aizkardi elkarteak antolatutako 22. Mendizale Asteak aurrera darrai, maila handiko ikus-entzunezkoekin, gainera. Gaur, Eneko Pou mendizale eta eskalatzailak *Ski estremoia Pirinioetan* izeneko proiektioa aurkeztuko du

Gurea zineman, 20:00etan. Bihar, ordu eta leku berean, Juan Vallejoren txanda izango da, *Annapura azken zortzimilakoa* ikus-entzunezkoarekin. Igandeko mendibilaldiarekin eta bazkariarekin amiatuko da Aizkardiren Astea. HITZA

08:00etan eta 16:30ean, eta jaiegunetan 09:00etan eta 16:30ean.

HITZALDIAK

Ikaztegieta. Kultur Astearen baitan, Trepalari elkarteak *Hiriguneetan landa daitezkeen zuhaitz espezieen aukeraketa* hitzaldia emango du liburategian, 19:00etan.

Ikaztegieta. Elhuyar Fundazioak *Klima aldaketak eta horien eragina gure planetan* hitzaldia emango du liburategian, bihar, 19:00etan, Kultur Astearen barruan.

Tolosa. *Doping-a eta kirola.* 19:30ean, Kultur Etxean.

ZINE-KLUBA

Alegia. Sofia Copollaren *Lost in translation* filma izango da ikusgai, 21:30ean, Gatzetxean.

GUARDIAKI FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, albisteak, oharrak...; agenda; albisteak, elkarrizketak, iritziak; 13:00etan, lehiaketa eta disko eskainiak.
 18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Zentroaren eskutik.
 19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tarte
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
 zoriontzeko, etorri:
 HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 beheka - TOLOSA
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

jantzi hitza ren jertse berriak
 HITZAren egoitzetan salgai